

ENARA GARMENDIA



# Ezagutu zintudanean

Dengaldatu zuen uda.

Enara Garmendia

Ezagutu  
zintudanean

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2026ko maiatzean*

Azalaren diseinua:

Iván Landa

Maketazioa:

Asier Beltza

© Enara Garmendia

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-121-3


L.G.: D 392-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eu](mailto:erein@erein.eu)

[www.erein.eu](http://www.erein.eu)    

Inprimatzailea: Ulzama

Altzutzate kalea, 51  
31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

[contacto@ulzama.com](mailto:contacto@ulzama.com)

[www.ulzama.com](http://www.ulzama.com)

ENARA GARMENDIA

Ezagutu  
zintudanean

erein

*Iker, bila nenbilen, baina hitzez  
azaldu ezin nuen hura zarelako.  
Nora, beti dena zuretzat.*

# 1

Autobusean sartu ginenetik ordu eta erdi pasatxo zen. Beireko aterpetxera iristeko gutxi falta zen eta urduri nengoen. Ez zen udalekuetara joaten ginen lehen aldia, izan ere, zazpi urte genituenetik batera joaten ginen «udako hirukotea»: lehengusu Jon, amaren lagun minaren alaba, Noa; eta ni. Baina udaleku hauek ezberdinak ziren; gu izango ginen zaharrenak. Ongi ezkutatatu nituen tabako paketeak eta Vodka –eguzkitako krema bote batean sartuta–, baina beldur nintzen maleta desegiten ari ginela begiraleek arakatuko ote zizkiguten.

Autobusa Nafarroako lur lehor eta beroetan sartu zenetik ari ziren barrukoak abesten, zirrarez beteta, zein eta udaleku guztietako autobus bidaietako kanta ofiziala: «Sardina bat, bi sardina, topatu ziren, izkin batean atxixitxixitxixiuaua auauauauauauatxixixi».

Gu ere abesten arituak ginen, baina ordurako Noa, beti bezala, ziplo lo zegoen, eta Jon eta biok elkarrizketan ari ginen.

—Udalekuetara gatozen hamargarren aldia da. Hamargarrena, June! —esan zuen bi eskuetako hatzak luzatu eta niri erakutsiz—, eta hala ere amak negar egin du gaur ere...

—Errutina bihurtu du dagoeneko... nahita egiten du!

—Ez dakit ba... baina egia da gure azken udalekuak direla... Bizitzaren fase bat amaitzen da...

—Aizu! —eten nuen—. Ez zaitetz orain ñoñokerietan hasi, e! Lehenik, udaleku hauek ez dira hasi ere egin, eta bigarren, ikasle moduan agian ez, baina begirale moduan seguru itzuliko garela. Zin egin genuen. —Isilik gelditu zen lehengusua pixka batean eta buruko keinu batekin Noari begiratu zion ondoren—. Esnatuko dugu? Kilima batzuk ez zaizkio gaizki etorriko.

—Hasi bila, bai, hasi. Ikusiko duzu nola kostatuko zaizun honi kilimak aurkitzea...

Ordu erdi geroago aterpetxearen barruko patioan maletak utzi eta borobil handi batean eseri ginen:

—Egun on denoi! —egin zuen garrasi lepoan txilibitua zeraman monitore altu batek—. Ni Leire naiz, udalekuetako zuzendaria, eta denon partetik ongietorria eman nahi dizuet. Segituan joango zarete maletak

uztera, baina lehenik eta behin taldekatzeak esango dizkizuet. Jolas eta ariketa guztietan batera ibiltzeaz gain, bazkalorduetan zuekin egongo den jendea da hau. Beraz, zuen izena entzuten duzuenean, zatozte hona eta egokitu zaizuen taldearen koloreko eskumuturrekoa hartu eta jantzi beharko duzue. Ez galdu hau, azken egunean galdu dutenek zigortxo bat izango dute eta. –Barre egin genuen denok–. Ea, Unax, irakur itzazu zure taldean izateko pribilegioa duten gazteen izenak.

Ilean rasta luzeak zeramatzan mutil gazte bat gerturatu zen aurrera:

—Zuen izena entzuten duzuenean, hartu maletak eta joan horko arkupea. Ea, ba: Manex Alkorta, Markel Asurabarrena, Garazi Bengoetxea, Koldo Diaz, Daniel Gabilondo, Aitzol Jaka, Oier Mintegi, Luka Petrovic, June Zelaipe eta Hegoi Zurutuza.

Nire izena entzutean zutitu eta bidali gintuzten tokira abiatu nintzen gainerakoekin batera. Maletak alde batera utzi, lurtean borobilean eseri, eta eskumuturrekoak jantzi genituen. Segituan ikusi nuen neskatxa txiki bat nola gerturatu zitzaidan.

—Kaixo, Garazi naiz –esan zidan–. Galduko gara mutil artean.

—Kaixo, ni June naiz. Eta ez kezkatu hauengatik, ederki dominatuko ditugu.

—Zenbat urte dituzu? Nik hamalau.

—Hamasei.

Une hartantxe Unax, gure begiralea, gerturatu eta hizketan hasi zitzaigun:

—Besteak antolatzen diren bitartean niri eman beharreko paperak bilduko ditut, ados? Eta gero arauak komentatuko dizkizuet. Lehenik eta behin txertoen jarraipen agiria eta osasun txartela eman beharko dizkidazue. —Banan-banan denok motxilak ireki eta eskatutakoa eman genion—. Orain, arauak errepasatuko ditugu. Ea, badakizue mugikorrek ekartzea debekatuta dagoela. Baten batek ekarri badu eta ikusten badugu, kendu eta azken egunera arte ez diogu itzuliko. Bestalde, alkohola, tabakoa eta drogak, oro har, guztiz debekatuta daude. Kasu honetan, norbait aurkitzen badugu halako zerbait kontsumitzen edo kontsumituta, zigor gogorra jasoko du. Irteeraren batean bertan geratu edo ariketa edo jokoak egin gabe geratuko da eta aterpetxean garbiketa lanetan edo gelditu beharko da. Eta aurkitzen duguna oso larria bada, pertsona hori etxera itzuli beharko da. Ulertu duzue?

Denok baietz esan genion eta pixka batean urduritu egin nintzen. Tabakoa eta alkohola ekarri nituen eta kontuz ibili beharko nuen.

—Eta orain zoazte logeletara, oheak aukeratu eta gauzak han utzi. Lehen pisuan daude gelak, bertan beste begirale batzuk daude zuei laguntzeko prest. Neskek eskuinera eta mutilek ezkerrera egin beharko duzue gora iritsitakoan. Hamar minutu barru berriro hemen elkartuko gara bazkaltzera joan aurretik, ados? Ea, goazen!

XXI. mendean egon eta oraindik neskak eta mutilak gela ezberdinetan banatzea patetikoa iruditzen zitzaidan. Egona nintzen denok batera lo egiten genuen udalekuetan, baina orokorrean banandu egiten gintuzten; beraz, oraingoan ere Jon bakarrik geratuko zen, eta Noa eta ni, berriz, batera. Baina, kexatzea alferrikakoa izango zela jakinda, gauzak hartu eta besteekin batera abiatu nintzen. Oraingoan ere Garazi nire alboan jarri zen:

—Zenbat zarete zu eta zure lagunak? —galdetu zidan, baina erantzuteko astirik eman gabe hizketan jarraitu zuen; jatorra egin zitzaidan energiakz beteriko neska hura—. Gu lau gara, nahi baduzu batera jar gaitzke.

—Bi gara gu.

—Ederki! Seguru egongo dela seiko gelaren bat. Literaren goiko edo beheko aldean egotea gustatzen zaizu? Niri goiko ohean lo egitea gustatzen zait, baina

nahi baduzu utziko dizkizuegu zuri eta zure lagunari goiko oheak eta gu moldatuko gara.

—Ez kezkatu, Noak edozein lekutan egiten du lo gustura, eta nik nahiago dut beheko ohean lo egin. Pixati hutsa naiz eta gauean komunera joateko jaikitzen naizenean nahiago izaten dut gora eta behera ibili beharrik ez izan.

## 2

Geletan gauzak utzi ostean, berriro arkupeetan, taldeetan elkartu ginen.

—Gehienok ez duzue elkar ezagutuko, beraz, jolas batzuekin hasiko gara, ados? Lehenengoa erraza da. Paper batean zuei buruzko lau gauza idatzi izenik jarri gabe, gero, papera tolestu eta erdian utzi pila bat eginez. Azkenik, nik paper bat emango diot zuetako bakoitzari eta jasotzen duzuen paperean idatzita dauden datuak ozen irakurri beharko dituzue, ea denon artean asmatzen dugun hori idatzi duena nor izan den. Ulertu duzue?

—Bai! —erantzun genion denok batera.

Begiraleak emandako papera eta arkatza hartu eta pixka batean pentsatu ostean niri buruzko lau gauza idatzi nituen:

- Izugarri gustatzen zait skatea.
- Urtero joaten naiz udalekuetara.
- Ia kirol guztiak ditut gustuko.
- Noizbait parakaidismo egitea gustatuko litzaidake.

Bost minuturen buruan denok utzi genituen gure paperak Unaxek esandako tokian, eta honek, denak nahastu ostean, bakoitzari bat eman zigun. Begirale-ari begira geratu nintzen pixka batean, jator egin zitzaidan: rastak zituen buruan, galtza zabalak eta niki handi bat zeramatzan soinean. Eta ez zen ni baino askoz zaharragoa izango. Hogei bat urte izango zituen; banituen bere adin inguruko lagun gehiago.

Azkenean, esku artean nuen papera begiratu behar izan nuen, gainerakoak hala ari ziren eta.

—Ea, nor hasiko da irakurtzen? —galdetu zuen Unaxek.

—Ni —erantzun zuen nire alboan zegoen mutil altu batek—: Lagunekin etorri naiz, zakurrak izugarri gustatzen zaizkit, igerilekuan eguzkia hartzeko amorratzen nago eta nire abeslari gustukoena Ed Sheeran da. —Denok begiratu genion zuzenean Garaziri.

—Nola jakin duzue horren azkar ni nintzela? —galdetu zuen.

—Garazi, begiratu zure eskumuturrari —esan nion gerturatu eta eskuari helduz. Eskumuturrekoa zera-man, eta bertan idatzita, «*Ed Sheeran forever*» letra handitan. Barre egin genuen denok.

—Oso ongi, Garazi, igerilekura joan eta Ed Sheeranen musika entzunez egoten den neskatzia —esan zion Unaxek—. Zergatik ez dugu ordena jarraitzen? June, irakurriko zuk zure orrian jartzen duena?

—Bai, noski —erantzun nion—: Donostiarra naiz, esku pilota gustatzen zait, aitonaren baserrian pasatzen ditut asteburuak, gidatzen dakit.

Denok isilik eta ingurura begira gelditu ginen. Tarteka norbaitek beste bati hatza luzatu eta «zu?» galdetzen zuen; honek buruarekin ezetz.

—Nork idatzi du, ba? —galdetu zuen Unaxek azkenean.

—Nik —erantzun zuen nire parean, zirkuluaren beste aldean eserita zegoen mutil batek.

Ordura arte ikusi izan ez banu bezala izan zen, baina behin begiratuta zaila zen begiak haren gainetik kentzea. Altua zen, eta eserita ere edonon ikusteko modukoa zirudien, gorputz indartsua zuen, giharrek eta haragiak ondo betetakoa. Ilehoria zen eta begi marroi sakonak zituen. Baina nabari zen lotsatia zela, oso lotsatia. Jolas hartan parte hartu eta denok berari

begira egoteak musu-gorritu egin zuen eta lurrera begira zegoen.

—Markel. Pilotari eta gidaria orduan —esan zion Unaxek.

—Beno, pilotan gidatzen baino hobea naiz. Eta lagunek Asu deitzen didate.

—Ados, ba, Asu.

Jolas hura amaitu eta hurrengorako binaka jartzeko eskatu zigun begiraleak. Ikusi berri nuenarekin Markel bakarrik geratuko zen beldurrez, eta sortu zidan intrigak bultzatuta, Garazik niri ezer esan aurretik mutil altuarengana gerturatu nintzen. Neska bizia zen Garazi eta ez zuen inongo arazorik izango bikoitea aurkitzeko.

—Markel, axola dizu zurekin jartzen banaiz?

### 3

—Zera... Bai noski —erantzun zidan segundo pare bat isilik pasatu ostean—, mila esker.

—Zergatik mila esker? Bikoteak egiteko eskatu digute eta interesgarria zinela iruditu zait, besterik ez.

—Interesgarria, ni? —Berriro lotsagorritu zen eta ia errudun sentitu nintzen.

—Zenbat urte dituzu?

—Hamabost.

—Ba horixe. Hamabost urte eta gidatzen dakizu?

—Bai beno... aitonarekin pasatzen ditut asteburuak, haren baserrian. Amona hil zenetik oso bakarrik dago han eta niri izugarri gustatzen zaizkit baserriko lanak. Bederatzi urterekin hasi nintzen traktorea mugitzen eta pixkanaka autoak gidatzen ere ikasi nuen. Baina han inguruan bakarrik. Ez naiz beste inon ibiltzen ilegalki gidatzen.

—Arau zalea zara orduan?

Tonu jolastiarekin esan nizkion hitz haiek, baina bere aurpegia ikusita gaizki hartu ote zuen beldurrez zerbait gehitzea erabaki nuen:

—Txantxa zen! Ez nuen uste Donostian zehar autoa hartuta ibiliko zinenik! Agian sinetsiko luke jendeak hemezortzi urte dituzula, baina erokeria litzateke!

Barre txikia egin zuen eta bazirudien zerbait erantzun behar zidala Unaxek hitz egin zuenean:

—Beno, jarri zarete bikoteka. Orain konfiantza lantzeko joko bat egingo dugu. Zuetako batek begiak estaliko ditu horko zapi horiekin eta besteak gidatuta han ageri den bidea egin beharko du. Kontuz ibili beharko zarete, ezingo baituzue zuen bikotekidea ukitu, ahotsez bakarrik gidatu beharko dituzue. Denbora kontatu egingo dugu, eta amaitzean taldeko bikote guztiek egindako denbora batuko dugu eta horren arabera olinpiaden taula orokorrean puntuak emango dizkigute. Beraz, prest gaude?

—Bai! —erantzun genuen denok.

—Ados. Ba orain erabaki bikote bakoitzean nork estaliko dituen begiak eta nor izango den gida.

—Nik estaliko ditut begiak —esan nion—. Zuk gidatu egingo nauzu horrela.

Irribarrez egin nion txantxa hura, baina ez zuen barrerik egin eta tuntun xamar sentitu nintzen... Askotan gertatzen zitzaidan, zerbait barregarria esan nuela uste eta inork barrerik ez egitea. Baina buruari buelta gehiago ez ematea erabaki nuen: udalekuetako lehen eguna zen eta banekien han ez nuela bizitza guztirako lagunik egingo, beraz, nire umorea gustatzen ez bazitzaien ere ez zen ezer gertatzen.

Abialekura joan eta, prest jarri ostean martxan hasi ginen denok. Ez nuen ezer ikusten, baina Markelek esandakoari jarraituz ongi gindoazela uste nuen.

—Orain pixka bat ezkerrera. Ez, hori eskuina da! Ezkerrera! Horrela... nahiko! Orain zuzen!

—Barkatu, eskuina eta ezkerre nahastu egiten ditut tarteka —esan nion, haur nintzenetik nuen arazotxo horrez lotsati.

—Orain 90° jiratu eskumuturrekoa duzun aldera.

—Zer? Bi eskuetan ditut-eta eskumuturrekoak!

—Eskumuturreko arrosa duzun aldera!

—Begiak itxita nago! Nola ostia jakingo dut zein eskutan dudan zein eskumuturreko?

—Ez didazu lan erraza jartzen, neska! —esan zuen ahapeka eta errudun sentitu nintzen, ez nuen nahi taldeak nigatik galtzerik.

—Alde honetara? –galdetu nion erantzuna itxaron gabe martxan hasita eta han zegoen pibote batekin estropezu eginez.

Begiak estalita erortzea gauez, batere argirik ez dagoenean erortzea bezalakoa da, normalean baino askoz beldurgarriagoa, ez dakizu zeren gainera eroriko zaren, ezta eskuak non jarri behar dituzun ere, eta, batez ere, ez zara jabetzen noiz egingo duzun lurrarekin talka. Harria bezala erori nintzen, eta esku, beso eta belaunetan sekulako mina sentitu nuen segituan.

—June! Ondo zaude? –entzun nuen Markelen ahotsa besotik helduta zutitzen laguntzen zidala.

—Ostia! Kristorena hartu dut! –esan nuen, baina lasaitu eta bere ahotsa zegoen aldera burua jiratuta nire hitzen tonua moldatu nuen—: Bai, bai, lasai. Segi dezagun. –Gezurra zen, gezur potoloa, minak akabatu ninduela uste nuen. Baina skatean ibiltzen den edonork dakien bezala, halako erori eta kolpeak ez dira arraroak eta aurrera jarraitu nahi nuen.

—Barkatu... –hasi zen esaten Markel.

—Ez da zure errua izan! Utzi barkamena eskatze-ari eta goazen! Ez dugu denbora gehiago galdu behar!

Ahots kezkatuz baina trinko eman zizkidan hurrengo jarraibideak eta helmugara iritsi eta begiak libratu nituenean ikusi nuen ez nintzela iristen azkena

izan, ezta azkenetakoa ere. Lasaitu egin ninduen horrek. Baina beso eta belaunetara begiratu nuenean, han ikusitakoa ez zitzaidan horrenbeste gustatu. Ez nintzen odoletan txorrotadaka ari, baina egin berri nituen urratuak ez ziren desagertuko etxera iritsi aurretik, beltzuneak non izango nituen ere ikus nezakeen. Markel laster gerturatu zitzaidan eta barkamen eske zetorrela iruditu zitzaidan, baina berak ezer esan aurretik hitz egin nion nik.

—Benetan, Markel, ez da zure errua. Lasai. Baina komunera joan behar dut, ur eta xaboiarekin garbitu behar ditut zauriak.